

## 3.2 GAIAREN LANKETA

### > **Lehen, egunero, orain, gero**



#### - **Gero**

- **Joxeren gutuna**

#### **Helburuak**

- Umeek Joxeren bidaiaren berri izatea.
- Etorkizuna lantzea.
- Umeak Joxerekin gogoratzea eta duten harremana ez galtzea.

#### **Prozedura**

- Hezitzaileak gutuna irakurri.
- Umeek ulertu duten ikusteko galderak egin.
- Umeei, bikoteka, Joxeren gutuna banatu eta beltzez markatuta dauden egiturei erreparatzeko eskatu.
- Azaldu (-ko/-go) erabiliko dugula bihar edo etorkizunean egingo ditugun gauzak adierazteko.

#### **Oharra**

- Hezitzaileak gutuna euskaraz irakurri arren, beharrezkoa bada, ideia garrantzitsuenak gazteleraz labur daitezke. Kasu honetan, helburua, umeek mezua ulertzea da.